

AMVISAK eta UPV/EHUK Uraren Gela sortzea adostu dute

Arabako Campusean gaituko da, udal-enpresaren ekarpenarekin

Batxi Aranburuk, AMVISAKo gerenteak, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campuseko errektoreordeak, Manoli Igartuak, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute **Unibertsitatea-Enpresa Gela "AMVISA Uraren Gela" sortzeko**. Hitzarmen horren helburua da uraren ziklo integralaren etapa guztien kudeaketa, ustiapen eta administrazio jasangarriaren arloarekin lotutako prestakuntza-, ikerketa- eta ezagutza-jarduerak egitea.

Horretarako, hitzarmenean ezarritakoaren arabera, **prestakuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia sustatzeko ekintzak** antolatuko dira uraren ziklo integralaren etapa guztien kudeaketa, ustiapen eta administrazio jasangarriaren arloetan; ikasketa eta ikerketa lan akademikoak egingo dira hezkuntzarako lankidetzaz programen esparruan (borondatezko praktikak), bai eta gradu amaierako lanak, master amaierako lanak eta doktorego tesiak (lehenetsuna emango zaie "Industria doktore" aipamena dutenei) ere; baterako jardunaldiak, bisitak, mintegiak eta prestakuntza ikastaroak antolatuko dira, jakintza sortzen eta zabaltzen laguntzeko; eta ikerketa zientifikoko edo garapen teknologikoko proiektuak egingo dira, eta horien edukia kasu bakoitzera sinatuko diren hitzarmen espezifikoean zehaztuko da. Halaber, ikerketa zientifiko eta teknikoko baterako azterlan zehatzak egingo dira, lantalde mistoak osatuz.

Gainera, aurreikusita dago laguntza bekak ematea eta/edo babes programak ezartzea, unibertsitate lanak sustatu, bultzatu eta garatzeko.



Hitzarmen honek sendotu egiten du UPV/EHUKo Arabako Campuseko Farmazia Fakultateak eta Ingeniaritza Eskolak azken urteotan AMVISAREkin egin duten lankidetzaz, jasangarritasunean, farmakutsaduran, digitalizazioan eta beste arlo batzuetan jarriz arreta.

Jarduerak egiteko, Gelak lokal bat izango du Arabako Campuseko unibertsitate pabiloian. Lokal hori AMVISAK egindako ekarpenarekin prestatu eta hornituko da.

Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, eta aho batez eta berriaz erabaki ahal izango da beste lau urtez luzatzea.

Bezeroaren arretarako bulego berria

Datorren irailaren 26tik aurrera, AMVISAK bere Bezeroaren Arreta Zerbitzua lekualdatzea aurreikusten du, Gure Txokoa eraikinean dituen bulego berrietara, Frai Francisco Vitoria pasealekuan, 21-C, behea. Arreta presentziala mantenduko da, aurrez ordua eskatuta



TUVISAREkin iristeko: L4 eta L6 lineak (Gaztela 36 - Gaztela/Prado), L8 (Elvira Zulueta), L10 (Micaela Portilla/Epaitegiak), BEI (Mendizorrotxa).

Kobrantzak kudeatzeko prozesuaren aldaketa

AMVISAK bere gain hartu du bere fakturak kobrartzeko kudeaketa, orain arte Gasteizko Udaleko Ogasun Sailak egiten zuena. **Horrek ez dakar aldaketarik gure zerbitzuaren ordainketa helbideratuta duten kontratuen %97,5entzat.**

Banku helbideratzerik ez duten bezeroei dagokienez, hiru hilean behingo fakturak fakturatutako zenbatekoen kobrantzari buruzko informazioa jasotzen du, ordaintzeko azken eguna eta ordainketa egiteko moduak ere adierazita.

Egoera horretan daudenean helbideratzea eskatu dezakete, bai gure bulegoetara bertara joanda, bai www.amvisa.onl Bulego Birtualaren bidez, edo mezu elektronikoko bat bidaliz amvisa@vitoria-gasteiz.org helbidera. Kasu guztietan NANA beharko da (edo BAK, BAKQ edo ziurtagiri digitalen bidez egiaztatzea, Bulego Birtualaren kasuan), eta banku kontuaren ziurtagiri bat.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org